

AUSARTAK





Ipuina ondokoen sorkuntza kolektiboa da:

MÁS MUJERES elkartea eta Save a Girl Save a Generation

Testua: Anna Maria Porté Estop

Ilustrazioa: Sara Fratini

Diseinua: María Ramis

Protagonistak: Asha Ismail eta Hayat Traspas

Koordinazioa: Clara Ruiz Holguín eta Cristina Alba Pereda

Euskarazko itzulpena: Lorea Undagoitia Rivero

Katalanezko itzulpena: Anna Maria Porté Estop

Galizierazko itzulpena María Canosa Blanco

Komunikazio eta hedapen estrategia: Erika Angulo Gracia

Más Mujeres elkarteko boluntarioen laguntzarekin

ISBN: 978-84-09-60651-1

Lege gordailua: LG BI 00683-2024

AUSARTAK

Hurrengo istorioa benetako gertakarietan oinarrituta dago. Emakumeen mutilazio genitala gaur egun ere mundu osoan milaka emakumek bizi duten praktika da, eta gero eta emakume gehiagok apurtzea lortzen dutena.





Ashak ahizpa nagusiari, Zuliri, galdetu zion: *Zuri min eman zizun? Izan ere, nik sumina daukat oraindik*. Zulik, orduan, burua makurtu, jiratu eta alde egin zuen, oinak arrastaka.

Asha amarekin amonaren herrixkara egindako bidaiatik itzuli zenetik, gauzak aldatu egin ziren. Goiz hartan hunkituta zegoen; oso jaiegun berezia izango zela esan zioten, hazi egin zela, eta bizar-xafla batzuk eroatera bidali zuten. Gero, hori gertatu zen. Min handia eman zion. Orain erretzen zion. Hobe ez pentsatzea.

Begiak ixten zituenean, hantxe ikusten zuen bere burua, lurrean etzanda. Hotz zegoen, zoru lehorraren harritxoak bizkarrean iltzatzen zitzaizkion, etxeko leihoa estaltzen zuen oihalak itzalak marrazten zituen lurreko hormetan, eskuetako behatzak lotuta izateagatik lokartu egiten zitzaizkion, euliak egongelan zehar jirabiraka zebiltzan, garondoan behera zetorkion izerdia nabaritzen zuen, mozten ari zen bizar-xaflaren hotsa entzun zuen, orratza eta haria ikusi zituen, negar egin zuen, eta korrika irten nahi izan zuen, baina ezin.


Ashak ez zuen ulertu hura zer festa zen. Ez zitzaion gustatu. Batere ez. Nahiz eta bere amonak esan: Orain heldua zara. Egunak joan ziren, eta oraindik ibiltzean mina zeukan, mugitzen zenean, pixa egiten zuenean. Erresumina zuen. Putzura ur bila zihoazela, amari zer egin zezakeen galdetu eta honek ur beroarekin eta gatzarekin garbitu zaitez esan zion. Asha hain ur beroarekin garbitu zen, non ia eskua erre zuen, baina ez zuen ezer sentitu. Erresumina ez zen joan, aitzitik, gehiago erretzen zion.

Ashak uste zuen, helduago egitean, ontziak ez ziola hainbeste pisatuko ur bila zihoanean. Baina bere bost urterekin (tira, berak uste du bost urte dituela, eskolara joaten diren beste neska batzuen altueragatik, baina berak ez daki zein egunetan jaio zen, ezta zein urtetan ere) nekatu egiten zen, ondorioz, hainbat aldiz gelditu behar zen. Horietako bidai batean, estropezu egin zuen, ibiltzean mina ematen ziolako eta ura erori egin zitzaion. Baliteke amona oker egotea, oraindik haur bat izatea.



Hori gertatu zitzaion Ashari, eta berari baino arinago, amonari, amari eta ahizpari. Familiako emakume guztiei. Auzokoei ere beharbada bai. Baina Ashak ez zekien, inork ez baitu horretaz hitz egiten. Behin baino gehiagotan Zulirekin saiatzen zen. Egun batean, Zuli arrozarentzako tipulak mozten ari zen bitartean, berriro galdetu zion: *Zuri mina eman zizun? Pasatzen al da?*

Zulik zorua seinalatu, tipula bat eman eta esan zion: *Puska txikitari moztu*. Handik gutxira, Ashak ahizpa zintz egiten entzun zuen, behatz luze eta fineko esku haiek ikusi zituen koloretako musuzapi bati eusten, aurpegiari erreparatu zion eta begiek dir-dir egiten zioten. Zulik esan zion: *Tipulek beti negarra eragiten didate*. Ashari ere begiak txikitzen hasi zitzaizkion. Biek tipulak mozten jarraitu zuten negarrez. Eta ahizpak ez zion inoiz erantzun.



Asharen familia Kenyan bizi den somaliar etniakoa zen. Asha, bere bizitza laburrean, hainbat herri eta hiritan bizi izan zen. Ama dibortziatu zenean, familia banandu egin zen: amak lan egin behar zuen etxe bat ordaindu ahal izateko. Arratsalde batean, neba zaharrena osaba batekin joan zen; beste egun batean, haize zakarra zebilela, izeba batek ahizpa eramane zuen. Egun batzuk geroago, amak izeba batekin utzi zuenean, esan zion: *Masail ederrak dituzu, alaba, musu eman diezazuten, ez jo zaitzaten. Ez ahaztu.*

Bere familiaren falta sumatzen zuen. Batzuetan lo egitea kostatu egiten zitzaion, eta bere buruari galdetzen zion ea ama laster ikusiko ote zuen berrir, ea nebak gogoratuko ote zuen, edo ea Zulik istorioak gordeta izango ote zituen berrir elkarrekin egoten zirenerako. Ez zuen ulertzen zergatik bizi ziren hain urrun. Ez zitzaion asko gustatzen etxe hartan egotea, nahiz eta han euri pixka bat gehiago egin eta hainbeste hauts ez egon. Gazteena zen, eta mundu guztiak gauzak agintzen zizkion. Eskolara joan izana gustatuko zitzaion.

Denbora pasa zen eta familia elkarrekin zegoen berrir. Ashak oso gogoko zuen etxe ondoko mangondoa. Hainbeste urtez banandurik egon ondoren, ia arrotz zitzaion ama. Ashak eta Zulik denbora gutxi ematen zuten berarekin. Bazkalorduan, izeba baten etxera joaten ziren. Arroza egiten ari ziren ontziari kea zerion, bertan eskua sartzen zuten eta eskuak erreta, zuhaitz zahararen azpira joaten ziren hura jatera, barre egiten zuten bitartean. Mangondoa erraldoia eta bakartia zen, eta izugarri gustatzen zitzaion.



Denbora pasa zen eta familia elkarrekin zegoen berriro. Ashak oso gogoko zuen etxe ondoko mangondoa. Hainbeste urtez banandurik egon ondoren, ia arrotz zitzaien ama. Ashak eta Zulik denbora gutxi ematen zuten berarekin. Bazkalorduan, izeba baten etxera joaten ziren. Arroza egiten ari ziren ontziari kea zerion, bertan eskua sartzen zuten eta eskuak erreta, zuhaitz zaharraren azpira joaten ziren hura jatera, barre egiten zuten bitartean. Mangondoa erraldoia eta bakartia zen, eta izugarri gustatzen zitzaien.



Ama berriro ezkondu zen, emakume batek ezin zuen familia bakarrik hazi, eta Ashak ahizpa txiki bat izan zuen. Ashari berarekin jolastea eta bera zaintzea gustatzen zitzaion, are gehiago ahizparen aitak alde egin zuenean eta berriro amarekin bakarrik bizi zirenean. Beste behin etxez aldatu ziren. Orain, Asharen aitarengandik hurbilago zeuden, eta hau bisitan etortzen zen, berak gonbidatutako beste senide batzuekin etxean bazkaltzen zuelarik. Asha nekatu egin zen azkena izateaz, ikasteko aukerarik ez izateaz, familiako gizonak eta lagunek egongela nagusian partekatzen zuten janariaren zain egon eta zerbitzatzeaz. Soberakinak bere ahizpentzat, amarentzat eta berarentzat ziren, egun batean mahaian eseri eta esan zuen arte: *Ez dut gose gehiago pasa nahi.*



Asha ez zen jaio berari gauzak debekatzeko. Nahikoa zen ezetz esatea, berak aurre egiteko eta ezinezkoa zena ere egiteko, edozertarako gai zela frogatzeko. Horregatik arauak hautsi zituen eta gizonzkoen mahaian eseri zen egun hartan. Ama asko haserretu zen, bere alabaren edukazio faltaz lotsatu egin zen. Baina ez, Ashak ez zuen lotsarik izan, gosea baizik, eta gizonentzako janaria bazegoen, denentzako zegoen. Beste inork ez zuen mahaitik bidaliko. Beraz, egun hartatik aurrera, amak, lehendabizi, neskatoei ematen zien jaten eta gero, gizonari.



Kenyan eskuineko eskua ezkerreko belarrira iristen zitzaizunean eskolara joan zintezkeen. Hori lortu ahal izateko, hainbat urte pasa eta ekin eta ekin aritu ondoren, azkenean iritsi zitzaion garaia. Klaseko zaharrena zen, eta gutxien zekiena; horregatik, seihilekoaren amaieran, ilarako azkena zen, eta iseken jomuga. Etxera negarrez iritsi zen eta ahizpa zaharrenak esan zion: *Irakurtzen ikasi nahi baduzu, liburu hau utziko dizut: "Through the garden gate" ikas ezazu, eta jakitea lortzen duzunean, beste inork ez dizu barre egingo.*

Inoiz ez zen berriro ilarako azkena izan. Irakurtzen ikasi zuen, eta liburutegia aurkitu zuen, liburuz eta argiz betetako lekua, itxi arte alde egiten ez zuena. Liburutegian zeuden ale guztiak irakurri zituen. Hitzen egarri zen. Bere familiak ez zuen ulertzen nola ikas zezakeen egun osoan zehar, etxean egin beharra zegoen lan guztiarekin. Diziiplina gehiago eta liburu gutxiago. Gauero, etxera itzultzean, zigortu egiten zuten, baina neskak berean jarraitzen zuen. Zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta argiago baitzeukan hori zela neskato guztiek egin ahal izan beharko luketena eta ez zuen uko egiteko asmorik, harik eta maisu bat iritsi zen arte familiarekin hitz egitera: *Utziozue ikasten, asko balio du.*



Etxean zigorrak amaitu ziren, eta familia pentsatzen hasi zen ea alaba institutura ikastera nola bidal zezaketen. Asha ikasgelako azkena izatetik probintzia osoko lehena izatera igaro zen institutuan sartzeko azterketan. Ikasleen-egoitza baterako beka bat lortu zuen: bere lehen maleta, toalla, hortzetako eskuila, armairua eta ohea berarentzat bakarrik. Egunak ziren Asharen ezkerreko masaileko zulotxo irribarre egiten zuenean agertzen zitzaiona, bere aurpegitik desagertzen ez zela. Denetarik zuten neskatilez betetako ikasle-egoitza bat zen, eta Ashak, ikasteko gogoia zuen.



Besteen artean bat gehiago izateko, Somaliako jeneral garrantzitsu baten iloba zela asmatu zuen Ashak. Egun batean, dutxetan, neskak desberdinak zirela ikusi zuen, ez bakarrik egunero kapera protestantera joaten zirelako edo zapata edo liburu gehiago zituztelako, baizik eta besteak ez zirelako beste horretatik pasatu. Gelara itzultzean, ohean etzan zen. *A zer amorrua!*

Orduan, hori ez zaie neskato guztiei gertatzen, pentsatu zuen: Zergatik niri bai? Ez zegoen nori galdetu. Beraz, ahal zuen guztia ikertzen hasi zen, hori egitearen arrazoiak jakin nahi zituen. Baina liburuetan ere ez zuen erantzunik aurkitu. Zerbait hautsi zen bere barruan, zergatik egiten zieten hori? Haren gorputza zen, haren intimitatea, haren bizitza; inork ez zuen haiei horrelako oinazetik eragiteko eskubiderik. Berdin zitzaion beti egin izana, edo adinekoek neskatoentzat ona zela esatea. Hori ez zegoen ondo. Betiko aldatu zuten, eta orain konturatu zen ez zuela zertan horrela izan behar: zahartu zitekeen, gorputza aldatuz zihoan.

Inork ez zuen zertan emakumeen gorputzak nolakoak izan behar ziren kontrolatu. Inoiz ez, inork ez, inon ez.

Eskolako oporrak iritsi ziren eta egun batzuetarako Asha herrira itzuli zen. Ikasleen-egoitzan behar zituen oinarrizko gauzak ordaindu ahal izateko, haragi xehatuz, barazkiz eta espeziaz betetako enpanadak saltzen hasi zen, *sambusak*, Goiz hartan, ama ahizpa txikiarekin ospitalera joango zela jakin zuen. Hori egingo zioten. Ez! Ashak oihu egin zuen. Eragozten saiatu zen. Ama geldiarazten. Ahizpa txikiari, *ez!* Gehiagorik ez. Giltzapetu egin zuten. Atea jotzen aritu zen egun osoan eta garrasi egin zuen ahotsa galdu arte. Itzuli zenean, amak esan zion orain ez zuela minik ematen, ospitalean egiten baitzuten. Ashak ahizpa besarkatu zuen. Ezin zion aurpegira begiratu ere egin. Eutsi egiten zion berak negar egiten zuen bitartean. Zer esan nahi zuen amak? Ospitalean praktikatzea hobe zela? Orduan, familiakoez haratago, zenbat emakumeri egingo zieten hori? Baina, zergatik? Min hori guztia, norberaren zati baten galera. Ashari eztarria erretzen zion bere barneko su hark. Oraingoan ere ez zuen hitzik egin. Ahotsik gabe geratu zen.





Ashak egoera hartatik ihes egin nahi zuen. Haurdunaldian, familiako lagun batzuen etxean lanean hasi zen. Haurra jaiotzean, gizon hura utzi egin nahi zuen. Ikasi, lan egin eta aurreztu egin zuen. Bere alaba jaio zen. Erditze hura hain zaila izan zen, ezen ia hil baitzen, baina aurpegitxo hura ikusi zuenean, Hayat txikia bera baino askeago izango zela agindu zion bere buruari.

Ashak esatari izan nahi zuen, unibertsitatera joan kazetari izateko eta irratian bizitzako istorioak kontatzeko. Ez zegoen dirurik etxean eta bere familiak Mogadiscion, Somaliako hiriburuan, bizi zen adineko gizon batekin ezkondu zuen. Senarraren familiak zaindu zuen haurdun zegoela jakin zuenean. Beraiena zen zerbait zeraman.



Asha Hayat gabe Kenyara itzuli zen familia bisitatzera, alabaren aitak ez baitzion hura herrialdetik ateratzen utzi. Ashak lan egiten zuen etxeko familiak ama-alabei bizitzaz aldatzen lagunduko zien. Pasaporteak prest zituen, eta itzultzen zenean, alaba hartu eta Danimarkara joango ziren. Baina gerra deklaratu zen. Mugak itxi egin zituzten eta Hayat harrapatuta geratu zen. Ashak burua galdu zuen. Muga itxita zegoen. Bere txikiaz ez zekien ezer. Lanik eta aurrezkirik gabe geratu zen. Bere desira lortzetik hain gertu zegoen... Eta dena lehertu zen.

Ez zuen lorik egiten, ez zuen jaten eta ez zuen sentitzen. Gerra madarikatuak dena suntsitu zuen. Berriro. Alabaren aitaren gutun bat jaso zuen. Alabarekin mugara iristen saiatuko zen, Ashak haiek herrialdetik atera ahal izango lituzke? Txiki-txiki eginda geratu zen. Ez zitzaion ezer geratzen. Bere aurrezkiak Mogadiscioko koltxoi batean ezkutatuta zeuden. Zulik begietara begiratu zion eta esan zion: *Goazen zure alabaren bila, nire urrezko bitxiak salduko ditut eta mugara joango gara. Aurkituko dugu.*





Mugan pilatzen ziren errefuxiatuei laguntza ematen zieten kamioiekin bidaiatu zuten. Dirua gutxi zen, eta bidaia luzea. Gerraren eta bakearen arteko ate itxi hartara iritsi ziren. Gorputz nekatu eta arima hautsiez betetako lerro amaigabe hura. Nola aurkituko zuten hain neskabila txikia hainbeste pertsonen artean? *Asha, jaiki, ez gara hain urrun iritsi amore emateko, Hayatekin itzuliko gara etxera.* Zúlik malkoak lehortu zizkion eta bere bila jarraitzeko banandu egin ziren. Aurpegi guztiek lausotuak ziruditenean, Ashak soinekoarekin bat zetorren lazotxo gorri bat ikusi zuen, geldi-geldi geratu zen. Izar txiki distiratsu haren ondoan, zikin eta hezurretan, aita zegoen.

Inoiz ez zuen bere alaba baino gauza ederragorik ikusi jendetza hartan. Urteak joan dira eta argi horrek zutik dirau. Hayat jaiotzean amak aurpegia ikusi zionean eta txikiak behatz potolodun eskutxo harekin amaren hatz txikia indarrez heldu zuenean jakin zuen hori. Horrek aurrera bultzatzen zuen, eta han, erabateko atsekabearen erdian, bere buruari hitz eman zion ez zituztela inoiz, sekula ere, inork berriro bananduko.

Ashak ez zion inori utziko norekin eta nola bizi behar zuen erabakitzen. Bukatu zen. Bere alabak, komunitateak pentsatzen zuenak edo sinesten zuenak baldintzatu gabe, aske hazteko eskubidea zuen. Une batez, alaba ezingo zuela berreskuratu sentitu zuen. Eta orain, berriro elkarrekin zeudenean, ez zuen bere burua menderatzen utziko: lan bat bilatu, trebatu eta alaba babestuko zuen. Ez zien alabari hori egiten utziko. Hayatek ikasi eta lan egingo zuen eta nahi zuenarekin ezkonduko zen.

Ashak, arnasa hartu zuen, ez zen konturatu gogorregi besarkatzen ari zen neskatoa ikaratu egin zela. Pixka bat aldendu zen, buruko lazotxo okertua ongi ipini zion. Aurpegitxo hartan hain baldintza txarretan egunero bizirauten zuten neskato guztiak ikusi zituen. Mugitzeko garaia zen. Hortik irten behar zuen. Hayaten soinekoaren hautsa astindu, besoetan hartu eta ahizparen bila hasi zen. Ahizpak etxera itzultzen lagunduko zien.



Asha Hayaten aitarengandik dibortziatu zen. Zuli eta neska txikiarekin Nairobin kokatu zen. Somaliako gatazkatik ihesi zihoazen errefuxiatuei laguntzen zien Gobernu Kanpoko Erakunde -GKE- batean lana aurkitu zuen. Ashak errefuxituei etxe bat aurki zezaten laguntzen zien bitartean, bera berea eraikitzen ari zen. Zulik, Hayatek maite zuen *xa/woa* postrea prestatu ohi zuen, eta ahizpak elkartzeko eta beraien kontuez hitz egiteko aitzakia ezin hobia zen. Asha Hayati galletak eta *xa/wo* pixka bat zerbitzatzen ari zen bitartean, alaba hazten ari zela konturatu zen. Agian, isiltasuna hautsi eta Zulirekin emakumeen genitalen mutilazioaz berriro aritzeko garaia zen. Orain bi ahizpak ama ziren eta horretaz hitz egin zezaketen.

Ashak ezpainzapi batez Hayaten ahoa garbitu zuen, zutik jarri zen eta ahizparen begirada bilatuz, zera esan zion: *Inoiz ez dut utziko Hayati guk bizitakoa gertzatzen*. Ahizpa mahaira hurbildu zen, eskuan zeukan koilara *xa/wo* bolean sartu zuen, leiho aurrean gelditu zen eta erantzun zion: *Nik ez dut neskatilarik izan, baina ez nuke onartuko nire alabak min hori bizitzea*. Hauxe izan zen ondoren sortuko ziren elkarriketa ugariren artean lehena. Elkarri entzun zioten eta une hartan nola sentitu ziren eta horrek hain sakonki nola aldatu zituen kontatzeko hitzak aurkitu zituzten.



Eta Ashak familiako beste emakumeekin eta alabak zituzten auzoko emakume ezkonduekin hitz egiten jarraitu zuen. Ez dut hau nire alabari gertatzerik nahi. Hori da *“Save a Girl Save a Generation”* erakundearen hazia. Ashak hitz egiteko eta *salbatu neska bat eta belaunaldi bat salbatuko duzu* esateko espazioak behar zirela konturatu zenean jaio zen erakundea. Nahiz eta tradizioaren pisua eta komunitatearen zati baten erresistentzia izan, gauzak aldatzea posible zen. Ashak hausten duen isiltasuna mundu osoan beste era batera bizitzera ausartzen diren ehunka emakumerena da. Bizitzan aurrera egiteko modu bat baino gehiago dagoelako eta Ashak dioen bezala: Nire bizitzaren historia oinetan idatzirik daukat. *Nire bizitzan ezin izan dut botoi bat josi. Orratz bat edo hari bat ikusten dudan bakoitzean, une horretara itzultzen naiz. Baina ziur nago, guztion artean, praktika hori desagerrarazteko beharrezko baldintzak ehundu ditzakegula. Nirekin zabiltza?*



ASHA ISMAIL ETA SAVE A GIRL SAVE A GENERATION

Bizitza berriro aldatu zen eta Asha ezkondu egin zen. Denboraldi batez, Ekuadorren bizi izan zen, behin betiko Espainian gelditu zen arte. Beste bi seme-alaba izan zituen, eta emakumeen mutilazio genitala nola tratatu ez zekiten osasun-profesionalak aurkitu zituen. Emakumeek bizirik dirauten emakume gisa lagunduta sentitzeko espazio bat izan beharko luketela uste zuen. Era berean, mutilazio genitalari buruzko isiltasun hori bere komunitatean ez ezik, mundu osoko milioika emakumeri ere eragiten zien eraso zela ohartu zen. Hau desagerrarazteko ezagutza zabalagoa behar zen. Orduan ofizialki *Save a Girl Save a Generation* jaio zen.

Kenyaren eta Espainiaren arteko zubia. Joan-etorriko bidaia. Emakumeen genitalen mutilazioari eta esperientzia horretatik bizirik atera diren emakumeak tratatzeko moduari buruzko prebentzio-prestakuntza jasotzen duten osasun-kolektiboetan, segurtasun-kidegoetan edo hezkuntza zentroetan gero eta kontzientzia handiagoa dagoen heinean, bidaia hazten doa.



Emakumeen genitalen mutilaziorik gabeko mundu baten alde borrokatzen diren edo borrokatu ziren beste emakume batzuk:



Reene Bergstrom

Doktore iparramerikarra.



Nawal El Saadwi

Mediku eta idazle
feminista egiptoarra,
Egiptoko Osasun
Publikoko Zuzendari
Nagusi izatera iritsi zen.



Masooma Rana

We Speak Out
erakundea sortu zuen
abokatu indiarra.



Patricia Tobón Yagari

Embera Herriaren abokatu indigena,
Kolonbiako bake-prozesuan Egia
Argitzeko Batzordean aritu zen.



Waris Dirie

Nazioarteko modeloa eta idazlea,
EMGren aurkako NBERen
enbaxadore berezia izan zen.



Adriana Kaplan

Wassu Gambia Kafo
GGKE sortu zuen
antropologo argentinarra.



Sophia Abdi Noor

Kenyakoko Parlamentuko
kide gisa, EMGren
aurkako lege bat
bultzatu zuen.



Ifrah Ahmed

Somaliar irlandarra,
Ifrah Fundazioaren
sortzailea.

Save a Girl Save a Generation emakumeen mutilazio genitalaren, adingabeen esplotazioaren, behartutako ezkontzaren eta emakumearen aurkako edozein tratatu txarren aurka borrokatzen duen gobernu kanpoko erakunde bat da. 2007an Asha Ismailek sortua eta zuzendua. Umetatik hitz egiteko eta euren eskubideak defendatu ahal izateko eskubidea kendu zitzaien emakumeez osatua dago erakunde hau. Hori dela eta, beste emakume batzuei gauza berbera ez gertatzeko laguntzeko premia sentitu zuten. 2007tik gaur arte, emakumeak eta neskatoak EMGren mende jartzea saihesten laguntzeko, bai Kenyan, bai Espainian, hainbat proiektu garatu dituzte. Save a Girl Save a Generation erakundeak zein beste erakunde batzuek, baliabide pedagogikoak garatu dituzte profesionalek EMGren aurrean hitz egiteko eta esku hartzeko moduari buruz eta, komunitateak eta herritarrak sentsibilizatzeko baliabideei buruz. Gai sakondu edota mezua zein esperientzia zabaldu nahi izanez gero, hauetako material batzuk luzatzen dizkizugu:

- Emakumeen mutilazio genitalari buruz nola hitz egin.

https://www.savegirlssaveageneration.org/imagenes/2020/02/how_to_talk_about_fgm_SP.pdf

- Emakumeen mutilazio genitala: jarduteko ulertu.

https://www.gobiernodecanarias.org/igualdad/documentos/comunicacion/2023_MUTILACION_GENITAL_FEMENINA.pdf

- Emakumeen genitalen mutilazioa eta behartutako ezkontza kasuetan esku hartzea. EMGren eta EMFren prebentzioa lantzen duten profesionalentzako orientabideak.

<https://www.savegirlssaveageneration.org/wp-content/uploads/OrientacionesIntervencion-MGF-MG.pdf>

- Mariama.

https://unaf.org/wp-content/uploads/2019/10/Cuento-Mariama_-castellano.pdf

https://www.stec.es/BLOG_ESCUELA_CANARIA_STEC/2020/MUTILACION_FEMENINA/Guia_Didactica_Mutilacion_Femenina.pdf



VALIENTAS BILDUMAKO BESTE IPUIN BATZUK

Mundu hobe eraikitzen laguntzen ari diren emakume garaikideen borroka ikusarazten dituzten ipuin ilustratuen bilduma. Liburuki bakoitzak errealitate gogorra transmititzen du bere irudi eta hitzen bidez, modu positiboan, ahalik eta pertsona gehien inplikatzeko.

BABESLEAKek, bildumaren lehen argitalpenak, Abya Yalako (Latinoamerika) Giza Eskubideen emakume defendatzaileen egoera aztertuz, erazketa transnazional handiei aurre egitean mehatxu eta jazarpenengatik beren lurraldeetatik ihes egin behar izan zutelako.

BOTERETSUAKek, bigarren liburukiak, Las Poderosas Teatro eta beste emakume guatemalarrak askoren istorioak ikusarazi zituen, interpretazioaren bidez indarkeria matxisten biktimengandik biziraun zutenengana, haien zauriak sendatuz.





ZERGATIK DA HAIN GARRANTZITSUA IPUIN HAU?

Emakumeen genitalen mutilazioa (EMG) munduan dirauten muturreko emakumeen eta nesken eskubideen urraketetako bat da, emakumeak kontrolatzeko modu bat, patriarkatuak esleitzen dien lekuan mantendu nahi dituen.

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du EMG: terapeutikoak ez diren arrazoiengatik, emakumeen kanpoko genitalak guztiz edo partzialki erauztea edo organo genitali beste lesio batzuk eragitea dakarten praktika guztiak. Praktika horiek ondorio kaltegarri sakonak dituzte, fisikoak zein emozionalak, emakumeen eta neskatoen bizitzako etapa guztietan: odoljarioak, infekzioak, sexu-harreman mingarriak eta/edo plazer sexualerako zailtasunak, baita heriotza-arriskua ere erditze korapilatsuetan.

Gaur egun, munduan, 230 milioi neskato eta emakume baino gehiagok pairatu dute EMG 30 herrialde ingurutan, eta horietatik 22 Afrikako kontinentean, Ekialde Ertainean eta Asiako zenbait eremutan daude. Ez dira zifrak, pertsonak, bizitzak eta benetako historiak dira. 230 milioi errealitate, praktika horrek eragiten duen sufrimendua erakusten dute. Gero eta emakume eta gobernu gehiago indargabetzen ahalegintzen dira.

44 herrialdetan debekatuta dagoen fenomeno globala da, baina klandestinitatean edo mugaz gaindiko EMGren bidez praktikatzan jarraitzen da. Horrek esan nahi du praktika debekatuta dagoen herrialde batean bizi diren neskak beste herrialde batera eraman behar direla, EMG egiteko lege kanpoko ez den herrialde batera. Migrazioekin EMG beste norako batzuetara hedatu izanak, hala nola AEBra, Kanadara, Europara, Australiara, Zeelanda Berrira... agerian uzten du ezagutza gutxiko arazoa dela jendarte globalizatu batean.

Istanbulgo Hitzarmena (edo Emakumeen aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeko eta Borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena) 2014ko abuztuaren lehen jarri zen indarrean, eta estatu espainiarrak berretsi egin zuen. Emakumearen aurkako indarkeriaren arloan, Europan izaera loteslea duen lehen tresna da, eta hari aurre egiteko irismen handieneko nazioarteko ituna ere bai. Zero tolerantzia ezartzen du emakumearen aurkako indarkeriarekiko, eta haren forma guztiak delitutzat, diskriminazio-modutzat eta giza eskubideen urraketatzat hartzen ditu, EMG barne, eta Estatuak erantzule jotzen ditu, behar bezala erantzuten ez badute. Hori dela eta, gobernuak arazo hori modu integralean ezagutu eta heldu behar diote.



AUSARTAK istorioak gauzak aldatu zitezkeela uste izan zuen emakume baten balioa azaleratzen du; alaba mutilatua izatea eragozteko ausardia agertu zuen emakumearena. Bere bidearen bilaketa, bere bizi-ikaskuntza elkarbanatzeko eskuzabaltasuna eta bizitzak eraldatzeko grina erakusten du.

Asha Ismailek emakumeen mutilazio genitala desagerrarazteko, bere bizipena kontatzen du. Berak Hayat alaba mutilatzea eragotzi zuenetik, bere ausardiaren bidez, borroka hori biderkatuz doa bere bizitzan gurutzatzen diren emakume guztiekin. Beraien historia milioika emakume eta neskatoena baita ere bada.

Emakume ekintzaile ausart askok, latitude desberdinetakoen ahaleginak batuz, giza eskubideen urraketa hori ikusaraztea eta aldaketak sustatzea lortu dute, aurrerantzean ere gerta ez daitezen. Otsailaren 6a Emakumeen Mutilazio Genitalaren O Tolerantziaren Nazioarteko Eguna da.

Hala ere, bide luzea dago egiteke, eta, horregatik, enpatiatik eta ahizpatasunetik abiatuta, ipuin honek, Asharekin eta mundu osoko ehunka emakumerekin batera EMG desagerrarazteko bidelagun egitera gonbidatzen gaitu.

AUSARTAK ipuinaren salmentatik lortzen dugun onurarekin, *Save a Girl Save a Generation* diruz lagunduko dugu, EMG desagerrarazteko misioan bide pedagogikoa eta prebentziozko ibilbidean jarrai dezan. Erakunde honek emakume belaunaldi gehiago babesten jarraitzea nahi dugulako.



GRACIAS. ESKERRIK ASKO. GRÀCIES. GRAZAS

A

Abel Porter
Addy Ortega Shulman
Aida
Aina
Aitor Basauri
Alicia Suils
Alina Kunz
Alvaro
Amaia Iguaran
Amaia Larrinaga
Ana Coscujuela
Ana González Bringas
Ana López
Ana Peralta
Anais
Anna
Ana Maria Estop
Ballarin
Anna M Porté
Anabel Consejo
Andrea Meana Vela
Àngels Belloch Aguilar
Àngels Palau
Antía Borge
Arantxa Abos
Arantxa Pereda
Goenaga
Argiñe
Assumpsió Perna
Aurèlia Llornes
Aurora
Aurora L'emboscada

B

Bea
Bea Medrano Asenjo

C

Carla
Carlos Askunze
Carme Arathea
Carme Passolas
Carmen y Kala Galbete
Carmen Fernández de Juana

Carmen Porté
Carmen Rami
Carmen Visen
Carmina Ferreres
Celia Alarcón
Celia Flores
Centro Abayomi
Psicología y Formación
Charo Bayon
Clara Marco Oscar
Clara + Paula
Clara Ruíz Holguín
Colegio Oficial de Enfermería de Sevilla
Concha Maestro
Conchita
Conxita
Cristina
Cristina Alba
Cristina García
Cristina Peña Tirado

D

Diego y Ana
Diego Redrejo
Dolors
Dunia Paloma

E

Eduarne Bengoetxea
Soroazabal
Eiden Larrazabal
Elena Borrull
Elena Estop
Elena Subirana
Elema
Elisabet Mata
Emma Ogueta
Eneko Marín
Enmaskarada
Eugenia
Eulàlia
Eulalia Olle
Esthela Tzorín
Esther Alba
Eva M. Sánchez García
Eva Pérez Reina

F

Familia de Bercianos y Velázquez
Fina Noray
Francesc Gascó
Fuen Garrofé

G

Greta
Greta i Noah

H

Haizea Arbide Aza

I

Ibai y Greta Eguskitz
Idoia Setien Llorente
Ilia
Irai eta Aitza
Irantzu
Irati eta Haizea
Irene
Irene Rojo
Irene Somoza
Iruna Lauzirika
Iruna Retuerto
Isa, Afrika y Eloise
Isabel Artaza
Isabel Escribano
Isabel García
Itsaso Larrieta

J

Jalila
Jana
Jojo Alguazas
Jordi Morell i Núñez
Jorge Zamuz
Jose Sanchez
José Antonio Ramírez
Sánchez
Jostu
Juan Ernesto Peña y Toñi Asensi
Juan Royo Abenia

Juanlu
Judit de ca la Digna
l'Estevet
Julia Moltó Linares

K

Karmele Aza
Barruetaña
Kerala Alba
Kike Rioz

L

La Tortuga
Torregamones
Laura
Laura Rodríguez
Lautaro, Obsa, Maria,
Isabel
LBR
Leo y Enara Trincado
Pérez-Arrospide
Leire Arano
Leire Narbaiza
Leire Pascual Basauri
Lidia Glez Fdez
Lluc, Juanan i Roser
Lorea eta Sustra
Luca & Lucía
Lucía
Lucila Cecchi
Luis Arbide
Luis y Oli de Llera
Luis Roman Menéndez
Lurdes Carro
Lola Sanchis Manzano

M

Macarena
Maider
Maite Marti
Majo Canet
Make y Nerea
Manuel Pérez
Escribano
Manuela Pérez
Mari Gutiérrez
Mari Jose Romero

María Ángeles Pereda
María Bejarano
María Canosa
María Elisa Cabezudo
María Fernández de Sammamed Maneiro
María José Romero
María José Vilches
María Jesús Salinas
María Marín
María Maroto
María i Emma Durban
Maruxiña
M. Ángeles
Bustamante
M. Carmen Buil
M. Carmen Menal
M. Teresa Vigo
Marian Arbide
Marian González
Marianela e Sabela
Maribel Abad
Maribel Feliz
Maribel Holguín
Avecilla
Marije
Marina Barredo
Marina Font Catalá
Margarita Joaniquet
Marta
Martina y Carlota
Jeatsa Ávila
Matilde Perera
Mayte Fornes
Mercè Burrel
Milagros Sánchez
Moni y Alex Moens
Dominguez

Mónica Miguez Ricón
Montse Español
Montse Nogué
Montserrat
Montserrat Cervera
Rodón
Montserrat Fiol
Santaló
Montserrat Joaniquet

N

Naialba
Naiara Agorria y Vega
Nanuca
Nerea Basauri
Nerea OIaso
Neus Marimon
Noemí Morral
Nolasc Ramis
Nora Ecenarro
Nuria Martínez
Núria
Núria Noc
Nusi

O

Olatz, Ixone eta Eihar
Olatzi
Olivia y Jorge
Óscar y Dafne Olivares
Martín

P

Pablo Sánchez
Pailary y Usiel
Palma
Paloma Oltra del Cerro

Paula Clar Martí
Pedro Molina Cañete
Pepe Sosa
Piedad Rodríguez
Pilar
Pilar Amat
Pilar Ibáñez
Pilar Pons Barro
Pilar Orenes
Possible Lab
Puerto González

R

Rafael Garrido Cortés
Rakelita
Raquel Burgos Plaza
Raquel García Terán
Raquel Rapado
Segurado
Renata F.
Rosalía Gascón

S

Sálvora e Xan
Sandra Díaz
Sandra Martínez
Moreno
Sandra y Jorge
Sara Giol
Sara LD
Sarini
Sheila/Pepe
Silvia Ferrandis
Silvia Garai
Silvia Peña García
Simone Riddle
Sofía Bellón Yáñez
Sonia Cuesta

Calcerrada
Sonse Cahuni
Spideralex

T

Tamy4K
Teresa Castro Comics
Teresa Donés
Teresa Muñecas
Teresa Puyol
Toni Vila

U

Úrsula

V

Vanessa Álvarez
González
Violeta Assiego Cruz
Virginia
Virginia Enebral
VividaZoe

X

Xexu

Y

Yolanda Barco
Yuma

Z

Zae Andres
Zuzel Rodríguez

@

@revolucionarsecuento
@sarafilgamarConstanta



Asociación MÁS MUJERES
www.masmujeres.org

Facebook:
Colección Valientas – Más Mujeres



AUSARTAK ipuin ilustratuak, istorio erreal baten bidez, aldaketak lortzea eta bidegabekeriak eragozteko posible dela erakusten digu. Zutitzera eta oihu egitera bultzatzen gaitu. Bat gehiagorik ez! Eraso gehiagorik ez! Munduko neska eta emakume guztien osotasun fisikoa eta emozionala defendatzera eta EMG desagerraraztera bultzatzen gaitu.

COLECCIÓN VALIENTAS gainerako ipuinak bezala, berez, ipuin bat baino askoz gehiago da. Gogoak eraldatzeko eta bihotzak sentsibilizatzeko tresna bat da. Biziki amesten dugun beste mundu posible honen eraikuntzan elkarrekin irmoki aurrera joan gaitzen. Emakume guztiak indarkeria mota guztietatik aske biziko garen mundua, hain zuzen ere.

